A4343
Donostiako Euskararen Plan Orokorraren Garapena eta Bai Euskarari Akordioa Altzan : Desarrollo del Plan General del Eusketa de Donostia-San Sebastián y del acuerdo Bai Euskarari en Altza / Bai Euskarari. Donostia: Altzako Bai Euskarari, 2002. 29,5 cm.
CASARES KULTUR ETXEA **Tokiko Bilduma**

# Donostiako Euskararen Plan Orokorraren garapena eta Bai Euskarari Akordioa *Altzan*

# Desarrollo del Plan General del Euskera de Donostia- San Sebastián y del Acuerdo Bai Euskarari *en Altza*

XXI. mendeko akordioa

euskararen donostia patronatua

bai euskarari

euskararen donostia patronatua

ALTZAn XXI. mendeko akordioa bai euskarari

**Altzako Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordeak**
La Comisión de Seguimiento del Acuerdo Bai Euskarari de Altza

**Koldo Cacho,**
San Pablo elizako parrokoa
*Párroco de la iglesia San Pablo*

**Altzaprint enpresa**

**Donostiako Euskararen Udal Patronatua,**
*Patronato de euskera del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastian*

**BizaRa In,**
Altzako euskalgintzaren elkartea
*Organismo de los agentes sociales del euskera de Altza*

**Batzen,**
Donostiako euskalgintzaren elkartea
*Organismo de los agentes sociales del euskera de Donostia*

**Euskararen gizarte erakundeen Kontseilua,**
*Consejo de los organismos sociales del euskera*

Atsegin handiz gonbidatzen zaitu *Altzako Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso Prozesuaren* **aurkezpen ekitaldira**. Ekitaldia, **urtarrilaren 17an, osteguna, arratsaldeko 7etan** egingo da, Casares kultur etxeko ekitaldi-aretoan.

Le invita al **acto de presentación** del *Proceso de Acuerdo y Compromiso Bai Euskarari de Altza,* que tendrá lugar **el próximo jueves, 17 de enero, a las 7 de la tarde**, en el salón de actos de la casa de cultura Casares.

**PROZESUAREN ZUZENDARITZA TEKNIKOA**
*La Dirección Técnica del proceso*

ALTZAKO BAI EUSKARARI AKORDIOA
Altzako Auzo Etxea, Larratxo kalea 55. 20017 Altza.- Tel.: 943-397464,
Faxa: 943 396494, e-posta: altzakobai@euskalerria.org

# Donostiako Euskararen Plan Orokorraren Garapena eta Bai Euskarari Akordioa Altzan

## 1. Aurrekariak

Euskal Herri mailan Kontseiluak sustatutako Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso prozesuak izan duen bilakaera oso positiboa izan da eta izaten ari da. Hau ikusirik, Bai Euskarari Akordioaren prozesua herrietan hedatzea erabaki du Kontseiluak. Hau da, herrietan, gizarte eragileen eskutik eta tokian tokiko udalarekin batera, konpromiso prozesu bat bideratzea herri mailako sektoreekin Euskararen Plan Estrategikoa eginez. Prozesu hau bi urrats nagusitan garatzen ari da: lehenbizi, esperientzia pilotu batzuk jarri dira abian eta ondoren esperientziak orokortu egingo dira, beti ere, Euskal Herri mailan gizarte eragile nagusienekin garatu den prozesuarekiko koherentzia bermatuz.

2000ko urrian, Altzako Bai Euskarari Batzordekideok (egun "**Bizarrain**" Kultur Elkartea) proiektu hau gure herrian abiatu eta bultzatzeko borondatea adierazi genion Kontseiluari. Kontseiluak gure herria esperientzia pilotu izateko hautatu zuen beste bederatzirekin batera.

Ondoren Donostiako Udalarekin harremanetan jarri eta bi erakundeok lankidetza hitzarmena sinatu genuen, Altzan Bai Euskarari Akordioaren prozesua abiarazteko asmoz. Prozesu honen baitan, Donostiako Euskararen Plan Orokorra eta Bai Euskarari Akordioaren ildo estrategikoak garatuko dira, Altzako gizarte eragileen bidez.

## 2. Prozesuaren antolaketa

Gisa honetako proiektuan ezinbestekoa da Donostiako Udalaren eta Altzako gizarte eragileen partaidetza. Funtsezkoa da guztion parte hartzea eta hasieratik prozesuan inplikatu diren guztien protagonismoa bermatzea. Beraz, ezinbestekoa izango da parte hartze ahalik eta zabalena bermatuko duen prozesua metodologia egoki batez bideratzea, eta zorroztasunez, zehaztasunez eta ikuskapena eginez jokatzea.

Prozesuaren koordinazioa (ikuskapena, aholkularitza, aurrekontuen gaineko erabakiak hartzea, batzorde teknikoa eta berariazko aholkularitzak) **Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordeak** egingo du. Honako hauek dira batzordea osatzen dutenak:

- Donostiako Udalaren ordezkariak
- Altzako gizarte eragileen ordezkariak
- Altzako euskalgintzaren elkarteko ordezkariak

**Kontseilua,** aholkularitza emateaz gain, prozesua dinamizatu eta sustatzeaz arduratuko da. Altzako prozesua Euskal Herriko gainontzeko esperientzia pilotuekin uztartu ahal izateko teknikari bat izango du Jarraipen Batzordean.

Era berean, Donostiako euskalgintza biltzen duen **Batzen** erakundeko ordezkari batek batzordean parte hartuko du gonbidatu gisa.

## 3. Prozesuaren urratsak

Altzako Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso Prozesuan hiru aldi bereizten dira:


Larratxo pasealekua 55. 20.017 Altza Tel.: 943 397464 Faxa: 943 396494
e-maila: altzakobai@euskalerria.org

### *a) Akordioaren aldia*

Herritarrek parte hartzeko prozesu zabala eta borondatezkoa abiaraztea proposatzen da. Donostiako Udalak, gizarte eragileek eta euskalgintzako erakundeek erabakiak adostasunean hartu behar dituzte, inolako inposaketarik gabe. Ildo horretatik, eman beharreko lehenengo urratsa **Bai Euskarari Akordioa sinatzea** izango da.

### *b) Plan Estrategikoaren aldia*

Fase honetan Altzako gizarte sektore bakoitzean euskararen egoerari buruzko gogoeta estrategikoa egingo da.
Lehenengo bileran, euskararen **diagnostikoa** egingo da sektoreen arabera.
Hurrengoan, euskara normalizatzeko **helburuak zehaztuko** dira.
Eta azken bileran, **ildo estrategikoak** (konpromisoak) eta aurrez ezarritako helburuak lortzeko ekintza zehatzak zehaztuko dira.

### *c) Konpromisoak hartzeko aldia*

Azken fase honetan gizarte eragileek konpromisoak hartuko dituzte lan-taldetako bileretan proposatutakoen artean, bakoitzari dagokion sektorean hizkuntza normalizazioa lortze aldera.

Azkeneko fasea amaitu ondoren, gizarte eragile bakoitzak hala nahi izanez gero, **Bai Euskarari Ziurtagiria** lortuko du Kontseiluaren eskutik, beti ere bere sektoreko gutxieneko konpromisoekin bat egiten badu eta horiek lortzeko plana eginez gero.


Larratxo pasealekua 55. 20.017 Altza Tel.: 943 397464 Faxa: 943 396494
e-maila: altzakobai@euskalerria.org

AM 34

euskararen donostia
patronatua

XXI. mendeko akordioa
bai euskarari

# Desarrollo del Plan General del Euskera en Donostia-San Sebastián y del Acuerdo Bai Euskarari en Altza

## 1. Precedentes y fundamentos de la propuesta

La evolución del Acuerdo Bai Euskarari a nivel de Euskal Herria ha sido muy positiva. Ahora se propone extender a los municipios encauzando un mecanismo que aglutine compromisos desde el ámbito municipal, mediante la elaboración de un Plan Estratégico a cargo de los agentes sociales que actúan en colaboración con los ayuntamientos correspondientes. Este proceso se está desarrollando en dos fases básicas: primero se han puesto en marcha varias experiencias piloto y más tarde se tenderá a generalizar dichas experiencias, garantizando la coherencia necesaria con el proceso que se ha desarrollado a nivel de Euskal Herria con los principales agentes sociales.

En octubre de 2000, l@s componentes de la Comisión Bai Euskarari de Altza (hoy en día la entidad cultural "**Bizarrain**") transmitimos a Kontseilua nuestro interés por poner en marcha este proyecto en nuestro pueblo; Kontseilua nos aceptó como experiencia piloto junto a otras 9 experiencias de toda Euskal Herria.

Fue entonces cuando nos pusimos en contacto con el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, con el que hemos suscrito un convenio de cobaloración para poner en marcha el Proceso de Acuerdo y Compromiso bai Euskarari en Altza, con el fin de desarrollar el Plan general del Euskera de Donostia-San Sebastián y las líneas estratégicas del Acuerdo Bai Euskarari a través de la toma de compromisos por parte de los agentes sociales altzatarras.

## 2. Organización del Proceso

En este proyecto es absolutamente necesaria la participación del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián y de los agentes sociales altzatarras. Creemos que es fundamental garantizar la participación y compartir el protagonismo entre todas las partes implicadas desde el principio, por lo que resulta indispensable encauzarlo con una metodología adecuada, y actuar con gran rigor, precisión y control.

La coordinación del proceso (supervisión, asesoramiento, toma de decisiones sobre presupuestos, la Comisión Técnica y las asesorías especializadas) recaerá en la **Comisión de Seguimiento del Acuerdo Bai Euskarari,** que está compuesta por:

- Representantes del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.
- Representantes de los agentes sociales altzatarras.
- Representantes del organismo de los agentes sociales del Euskera de Altza.

La labor de **Kontseilua** será la de asesorar, dinamizar, impulsar y coordinar con las demás experiencias piloto. Para ello, un técnico del organismo formará parte de la Comisión de Seguimiento.

Así mismo, el organismo **Batzen** que aglutina a los agentes que trabajan por el fomento del euskara en Donostia-San Sebastián asistirá a las reuniones como invitado.

## 3. Fases del Proceso

El Proceso de Acuerdo y Compromiso bai Euskarari en Altza se desarrollará en tres fases:

### *a) Fase del Acuerdo*

Se propone iniciar un proceso de amplia y voluntaria participación ciudadana. El Ayuntamiento, los agentes sociales y los organismos para el fomento del euskera deben tomar las decisiones por unanimidad y actuar de común acuerdo, sin aceptar imposiciones. En este sentido, el primer paso a dar será **la firma del Acuerdo Bai Euskarari.**

### *b) Fase del Plan Estratégico*

En esta fase se realizará la reflexión estratégica en torno al Euskera en los distintos sectores sociales altzatarras.
En una primera reunión, se hará el **diagnóstico** de la situación del Euskera en los diferentes sectores.
En la siguiente, se **marcarán los objetivos** a conseguir en pos de la normalización lingüística.
Y en la última reunión, se **definirán las líneas estratégicas** (compromisos) y las acciones que concretarán los objetivos anteriormente expuestos.

### *c) Fase de la Toma de Compromisos*

En esta última fase los agentes sociales adoptarán los compromisos entre los propuestos por ellos en las reuniones de trabajo para llevar a cabo la normalización lingüística en su entorno.

Una vez concluida la última fase, si cada agente social así lo quiere, se le otorgará el **Certificado Bai Euskarari** promovido por Kontseilua a condición de que tome los compromisos mínimos de su sector y diseñe un plan para llevarlos a cabo.

# "Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra"ren garapena Altzako gizarte eragileekin Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso Prozesuaren bidez

*Desarrollo del "Plan General del Euskera" con los agentes sociales de Altza a través del Proceso de Acuerdo y Compromiso Bai Euskarari*

euskararen donostia
patronatua

XXI. mendeko akordioa

bai euskarari

# AURREKARIAK antecedentes

Kontseiluaren
Bai Euskarari Akordioaren
Plan Estrategikoa

*Plan Estratégico del*
*Acuerdo Bai Euskarari*
*de Kontseilua*

KONTSEILUA

euskararen donostia patronatua

Donostiako Udal Patronatuaren
Euskararen
Ekimen Estrategikoak.
Donostiako Plan Orokorra

*Plan General del Euskera*
*del Patronato Municipal*
*de Euskera de Donostia*

**Altzarako proposamena Hitzartu**
2001-XII-13
***Acordar la propuesta para Altza***

**Altzako Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordearen osaketa**
***Creación de la Comisión de Seguimiento Del Acuerdo Bai Euskarari en Altza***

**Talde Eragilea osatu**
***Creación del Equipo Impulsor***

**Normalizatzaileen formazioa**
***Formación de los normalizadores***

**Gizarte eragileen zerrendak osatu sektoreka 2 faseetarako**
***Redacción de los listados de los agentes sociales por sectores para las 2 fases***

**"Euskararen Ekimen Estrategikoak.**
**Donostiako Plan Orokorra"ren**
**garapena Altzako gizarte eragileekin**
**Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso**
**Prozesuaren**
**Bidez**

***Desarrollo del "Plan General del Euskera"***
***con los agentes sociales de Altza***
***a través del Proceso de Acuerdo y Compromiso***
***Bai Euskarari***

**IBILBIDEA**
Hizkuntz portaeraren aldaketa mailakatua, modu naturalean emandakoa eta borondatezkoa

**TRAYECTORIA**
Variación gradual de las tendencias lingüísticas, de manera voluntaria y natural.

**OINARRIAK**
- Partaidetza zabala
- Borondatezkoa
- Prozesu mailakatua
- Zorroztasuna
- Zehaztasuna
- Kontrola
- Adostasuna

**FUNDAMENTOS**
- Amplia participación
- Voluntario
- Proceso gradual
- Rigurosidad
- Exactitud
- Control
- Acuerdo

**HELBURUA**
Euskararen erabilera bultzatu eta normalizatu Altzako herritar guztien hizkuntz eskubideak errespetatuz

**OBJETIVO**
Impulsar y normalizar la utilización del Euskera, respetando los derechos lingüísticos de los vecinos de Altza

# 1 FASERAKO SEKTOREAK ETA ARLOAK
## sectores y áreas para la primera fase

| SEKTOREAK | ARLOAK | áreas |
|---|---|---|
| **1. KULTURA** | • Kultur elkarteak<br>• Kultur Etxeak<br>• Jai antolatzaileak, festa-batzordeak<br>• Musika<br>• Zinema eta antzerkia<br>• Liburugintza, argitalpenak, fonografia eta bideografia | • *Asociaciones culturales*<br>• *Casas de Cultura*<br>• *Comisiones de fiestas y organizadores de actividades*<br>• *Música*<br>• *Cine y teatro*<br>• *Producción literaria, ediciones, fonografía y video* |
| **2. HEZKUNTZA** | • Lehen hezkuntza eta DBHko ikastetxeak<br>• Institutua eta Eraikuntza Eskola<br>• Eskoletako guraso elkarteak<br>• Helduen euskalduntze eta alfabetatzea<br>• Prestakuntza, irakaskuntza arautu gabea | • *Educación primaria y secundaria*<br>• *Instituto y Escuela de la Construcción*<br>• *Asociaciones de padres de alumnos*<br>• *Euskaldunización y alfabetización de adultos*<br>• *Formación no reglada* |
| **3. GAZTEEN AISIALDIA ETA KIROLA** | • Kirol elkarteak<br>• Gimnasio eta kirol enpresa pribatuak<br>• Kiroldegi eta frontoiak<br>• Aisialdi taldeak<br>• Gazte erakundeak<br>• | • *Grupos deportivos*<br>• *Gimnasios y empresas privadas deportivas*<br>• *Polideportivos y frontones*<br>• *Grupos de tiempo libre*<br>• *Asociaciones juveniles* |

# 2 FASERAKO SEKTOREAK ETA ARLOAK
## sectores y áreas para la 2 fase

| SEKTOREAK | ARLOAK | áreas |
|---|---|---|
| **4. LAN MUNDUA** | • Enpresari-elkarteak, Sindikatuak eta Elkargo Profesionalak<br>• Enpresa pribatua<br>• Enpresa publikoa<br>• Nekazaritza | • *Asociaciones empresariales, sindicatos y asociaciones gremiales*<br>• *Empresa privada*<br>• *Empresa pública*<br>• *Agricultura* |
| **5. MERKATARITZA ETA OSTALARITZA** | • Merkatari eta ostalari elkarteak<br>• Taberna, jatetxe eta dendak.<br>• Saltoki handiak | • *asociaciones gremiales*<br>• *bares, restaurantes y tiendas.*<br>• *Grandes almacenes* |
| **6. ZERBITZUAK** | • Udalaren zerbitzuak: autobus konpainia, hilerria, Udalaren bulegoak, zabortegia, gasa, ura...<br>• Anbulatorioa, Klinikak, osasun etxeak eta ile-apaindegiak<br>• Finantza-entitateak, Notaritza, gestoriak...<br>• Garraioak: RENFE,autobus enpresak, Taxi konpainiak, gasolindegiak...<br>• Posta<br>• Auzo-elkarteak<br>• Eliza<br>• Bestelako gizarte-erakundeak | • *Servicios municipales: autobús, cementerio, oficinas, vertedero, gas, agua...*<br>• *Ambulatorio, clínicas y peluquerías*<br>• *Entidades financieras, notarías, gestorías...*<br>• *Transporte: RENFE, autobuses, Taxis, gasolineras...*<br>• *Correos*<br>• *Asociaciones vecinales*<br>• *Iglesia*<br>• *Otras asociaciones* |

# PROZESUAREN ESKEMA
## esquema del proceso

**Akordioaren fasea**
*Fase del Acuerdo*

**Euskararen**
**Plan Estrategikoa sektoreka**
*Plan Estratégico del Euskera*
*por sectores*

**Konpromisoen fasea**
*fase de los compromisos*
*Certificado* **Bai Euskarari Ziurtagiria**

## Akordioaren fasea *Fase del Acuerdo*

Prozesuan parte hartu, Bai Euskarari Akordioa sinatu eta konpromisoak hartzeko gonbidapena gizarte eragile Altzatarrei

***Invitación a los agentes sociales altzatarras a tomar parte en el proceso, firmar el Acuerdo Bai Euskarari y comprometerse por el Euskera***

# Euskararen Plan Estrategikoa sektoreka
## *Plan Estratégico del Euskera por sectores*

***1 bilkura reunión 1***

AMIA matrizea
*Matriz DAFO*

***2 bilkura reunión 2***

Helburu estrategikoak
*objetivos estratégicos*

***3 bilkura reunión 3***

Ildo estrategikoak eta ekintzak
*líneas estratégicas y actuaciones*

| **AZTERKETA TALDEAK** | ***Grupos de análisis*** |
|---|---|
| • Sektoreetako eragileak | *Agentes sectoriales* |
| • Normalizatzaileak | *Técnicos normalizadores* |
| • Zuzendari teknikoa | *Directora técnica* |

# Konpromisoen fasea *fase de los compromisos*

## *Certificado* Bai Euskarari Ziurtagiria

Ildo estrategikoak = KONPROMISOAK = neurri normalizatzaileak
Ekintzak = konpromisoen zehaztapenak, pausuak.

Gutxieneko konpromisoak hartu eta ezarpena zehaztu

⇒ Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu

Bai Euskarari Ziurtagiria
bai
Bidean

*líneas estratégicas =COMPROMISOS= medidas normalizadoras*
*Actuaciones = concreción de los compromisos*

***Asunción de compromisos mínimos y concretar su aplicación***

⇒ ***Certificado Bai Euskarari***

# ORGANIGRAMA

## JARRAIPEN BATZORDEA
*Comisión de Seguimiento*

- Gizarte eragileak — *Agentes sociales*
- Donostiako Udala
- Bizarrain (euskalgintza)
- Zuzendari teknikoa — *Directora técnica*
- Kontseilua
- Batzen

## Talde Eragilea
*Equipo Impulsor*

- Udalaren hizkuntza normalizatzailea/ técnica de normalización del Ayuntamiento
- Euskalgintzak jarritako normalizatzaileak/ técnicos de Bizarrain
- Kontseiluko ordezkaria / representante de Kontseilua

| 1 | 2 | 3 |
|---|---|---|
| AZTERKETA TALDEA | AZTERKETA TALDEA | AZTERKETA TALDEA |
| *Grupo de análisis* | *Grupo de análisis* | *Grupo de análisis* |